

Psikologo Euskaldunen III. Topaketa  
2019ko azaroak 16



Familia, Eskola eta Komunitatearen arteko  
baterako hezkuntza: Koedukazioa



2019/11/18

1

Haezi-Etxadi taldeko kidea. Gure taldeak haurren garapena eta Familiaren Psikologia gaiak ikertu eta ikerketatik abiatuz esku-hartzeak abian jartzen ditu.

Asko pozten nau Psikologo Euskaldunen Topaketa osatu eta bertan ari garelako.


Eskerrak eman nahi dizkiot UEUri ekimen hau antolatzeagatik baita Bizkaiko Psikologoaren Elkargoari bere lankidetzagatik.

Jarraian era laburrean Familia-eskola eta komunitatearen arteko baterako hezkuntza: koedukazioa aztertuko dugu.

Lehenik eta behin koedukazio terminoa azalduko dut, eta ondoren zehazki Familia-eskola koedukazioan oinarritutako ikerlana eta bertan jasotakoak aurkeztuko ditut.

---

Familia-Eskola eta Komunitatearen arteko baterako hezkuntza: Koedukazioa



2019/11/18

2

---

Gaur egungo gizartean haurren garapen osotua, hots garapen psikosoziala bultzatu nahi badugu ezinbestekoa da haurra inguratzen duten 3 esparru kontutan hartzea:

- 1- Familia. Haurren garapenaren abiapuntua, babeslekua. Bertan izango dituen lehen esperientzietan munduan maneiatzeko beharreko trebezien jatorria koka dezakegu.
- 2- Eskola. Familiarekin batera ardura hezitzaile argia duen testuingurua dugu. Haurrak adin goiztiarretik bertan igarotzen duelarik eguneroko denbora tarte handi bat adinkide eta eskola eremuko profesionalekin elkarlanean.
- 3- Eta bai eskola eta bai familia komunitate batean murgilduta daude, eta bertako eragile ezberdinen zeresana ezin da ukatu (aisialdiko begirale, kirol zerbitzu, komunitateko antolaketa, araudia etab).

Beraz haurren inguruko eragile guztiek zeresana dute haurren GARAPEN PSIKOSOZIALA ,osotua eta aukera berdintasuna bermatzeko orduan.

Hau da garapen psikosoziala lortzeko haurrak beharizan bio-psiko-sozialak asetuta izan behar ditu.

---

---

Familia-Eskola eta Komunitatearen arteko baterako hezkuntza: Koedukazioa

***baterako hezkuntza***



***koedukazioa***

***kohezkuntza***

2019/11/18

3


---

**Kohezkuntza, koedukazioa, baterako hezkuntzaz mintzo garenean ZERTAZ ARI GARA?**

---

---

Familia-Eskola eta Komunitatearen arteko baterako hezkuntza: Koedukazioa



---

## Zer da koedukazioa?

Pourtois, Desmet eta Lahaye (2011) ren definizioa jarraituz: Hezkuntza arloan akzio adostua litzateke. Hau da haurren inguruko eragileek ( irakaslek, guraso, gizarte zerbitzu etab.) ekintza hezitzaileak adostu eta aurrera eramatean datza, bakoitzak bere esparrutik. Beraz koedukazioa aktore hauek burutzen duten lan hezitzailea funtzionatzen jartzean datza, esfortsuak koordinatu, osatu, gehitu eta hedatzekotan.


Gazteleraz Coeducación, FR.coeducation, EN.partnership. Euskaraz baterako hezkuntza edo zehatzago koedukazioa. Hezkidetzaren alde batetara utzi da genero berdintasun alorrean erabilia baita.

Pourtois, J.P., Desmet, H., eta Lahaye, W., (2013). Parents partenaires de l'éducation. Experience pilote à l'école maternelle, rapport finale de reserche. Fédération Wallonie-Bruxelles. Monseko Unibertsitatea, Belgika.

Portois, J.P. Eta Desmet, H. (2006). La educacion postmoderna. Madrid: Editorial Popular.

---

## Nola abiarazi koedukazio esperientzia?



### Nola abiarazi genezake koedukazio esperientzia:

- Lehenik eta behin argi izan behar dugu, eragile guztien helburua haurren ongizatea, hau da garapen psikosoziala dela
- Errolak definitu behar dira. Garrantzitsua da testuinguruen arteko ezberdintasuna onartu eta osagarritasunaren aldeko jarrera hartzea. Honetarako funtzio eta ardurak zehaztu eta esparru amankomuna adostea ezinbestekoa da.
- Norantza anitzekotakoa dela esan genezake, guztien parte hartze aktiboa eta elkarkidetzat eskatzen du, ardura partekatua dela onartuaz.

### Baina orokortasunetatik konketurako jauzi horretan, **nondik has gaitzke lanean?**


- 1- Esparru bakoitzaren egoeraren diagnostiko bat egin egoera zein den jakiteko, hau da dituen mugak eta eskura dituen baliabideak.
- 2- Helburu zehatz eta egingarriak zehaztu.

Eta Komunikazioa, konfidantza edo eta errespetua prozesua gauzatzeko bitarteko eta aurretiazko aldagaiak direla esan genezake.

Azken finean hau eginez guztion esparru amankomuna zehazten ari gara.

## Elkarrekin zer egin genezake? Nola?

Errealitatearen arabera  
elkarkidetza zehaztu



ESPARRU  
AMANKOMUNA

2019/11/18

6


**BERAZ** koedukazioa laburbilduz:

Haurren inguruko eragileen arteko harremana baina haratago dijoa.

Hau da bakoitzaren momentuko errealitatea eta eskura dituen baliabideak kontutan izanda, ahaldundu, esparru amankomuna adostu eta elkarkidetza zehaztean datza, hau da “elkarrekin zer egin genezake?” galdera orokorrari erantzungo liokeena.

Gauzatzeko zeintzuk dira ditugun baliabideak eta oztopoak?

Ikerketa esparrua: Familia-Eskola



2019/11/18

7

Azken helburua Familia-eskola eta komunitatearen arteko koedukazioa den arren, eskura ditugun baliabideak kontutan izanda gure ikerlana familia-eskola koedukazioan oinarritu da. Hau da bi mikrosistema hauen arteko elkarlanean.

Ikerketek zer diote?



Haurren ongizatean

Eskolaren eraginkortasunean

Harremanaren kudeaketaren garrantzia

2019/11/18

8

---

## Ikerketek zer diote?

- Ikerlan askoren emaitzak adierazten dute familia-eskolaren harremanaren eragina haurren ongizatean eta eskolaren eraginkortasunean.
- Harremana haurra eskolatzen den momentuan zehazten da. Hau gero eta goizago ematen den arren, EAEn familien gehiengo HHko bigarren ziklorako eskolatu da. Ikerketek adierazten dutenez guraso eta irakasleen harremana garai honetan osasuntsua eta hurbila da.
- Bronfenbrennerrek, gizartea aztertzeko orduan eskeini zuen eredu ekologikoak azaltzen duen bezala, eskola eta familia bezalako bi mikrosistemen arteko elkarreraginak mesosistema osatzen du. Elkarreragin honen indarra handia da, haurrarekiko elkarlanean aritzeko gai direnean garapena eta hezkuntza bultzatzeko duten ahalmena biderkatzen baita. Bere kalitatearen arabera haurarentzat arrisku edo babes faktore bilakatuz.

Honek harreman honen kudeaketaren garrantzia mahai gainean jartzen du.

---

Familia-Eskola eta Komunitatearen arteko baterako hezkuntza: Koedukazioa

Noiz zehazten da?



Aldi kritikoa: esperientzia goiztiarrek ondorengo bilakaera baldintzatu



Harreman sana

2019/11/18

9

---



---

Noiz zehazten da?

- Haurrarekin batera, familia eskolatzen den momentuan.
- Haurraren garapena aztergai duten ikerlanek eskola aurreko garaia haurren garapenaren ALDI KRITIKOA dela argudiatu dute. Epealdi honetako esperientziek eta elkarrekintzek haurraren ondorengo bilakaera baldintzatuko dute, garapeneko alderdi ezberdinetan: eskola egokitzapenean, garapen kognitiboan, irakurmen, idazketa prozesuetan, errendimendu akademikoan eta bere garapen sozioemozionalean. **BERAZ** Haurraren ongizatean.
- Espero zitekeen bezala, ikerketen emaitzek adierazten digute esperientzia goiztiar hauek ematen diren haurraren testuinguru hurbileko familiako eta eskolako aldagaiekin duen harremana.

---

Familia-Eskola eta Komunitatearen arteko baterako hezkuntza: Koedukazioa

### *Poli Untxia* esku-hartze programa

Parents partenaires de l'éducation "Polo le Lapin" (Pourtois, Desmet eta Lahaye, 2013).

Haurraren garapen  
psikosoziala

Lexikoa



F-E koedukazioa

2019/11/18

10

---

Gure ikerlana Poli Untxia esku-hartze programan oinarritu da .

Bere jatorria Parents partenaires de l'éducation ikerketaren baitan dagoen "Polo le Lapin" esku-hartze programan dago.

Programa hau hemengo errealitatera egokitu eta EAEn 6 ikastetxan aplikatu da.

-Bere xedea haurraren garapen psikosoziala sustatzea da eta horretarako haurraren lexikoa eta koedukazioa bultzatzen ditu.

---

---


Izenak dioen bezala programako pertsonai nagusia hor duzuen untxia da, aplikazioan zehar esku-hartze esparruetan present izango dena.

Pourtois, J.P., Desmet, H., eta Lahaye, W., (2013). Parents partenaires de l'éducation. Experience pilote à l'école maternelle, rapport finale de reserche. Fédération Wallonie-Bruxelles. Monseko Unibertsitatea, Belgika.

---

Familia-Eskola eta Komunitatearen arteko baterako hezkuntza: Koedukazioa

### *Poli Untxia* esku-hartze programa



2019/11/18

11

---

Labur labur programa honetan material, dinamika eta ekintza desberdinen bidez haurren lexikoa eta familia-eskola koedukazioa sustatu da. Dinamika horien artean nagusia, Poli untxiaren peluxeak egunero eskola-etxea-eskola egiten duen bidaia delarik. Haurrak berarekin estuki atxiki dira eta trantsizio objektu indartsua bilakatu da.

---

***Ikerketa-akzioa*** metodologia



6 eskola publiko

n=173 (79 ♀; 94 ♂ ) Leioa n1=94; Debarroa n2=79



2019/11/18




12

Ikerketa-akzioa metodologia: Ikerketa jarraia, aplikazioan zehar behatutako beharretara moldaketa. Metodologia partehartzaile eta dinamikoaren abantailak errealitatera egokitzapen eta eraginkortasunean.

D ereduko 6 eskola publikoko

186- Onartze erizpideak. 173. HH 3 urteko haurrak, beraien familiak eta 10 irakaslek parte hartu dute.

Esku-hartzearen ekarpenak:



Esku-hartzearen ekarpenak- Ikerketan behatuak:

-Familia-eskolaren hurbilpena-Jarraikortasuna. Irakasle lana ezagutu eta duen balioa eman zaio. Eta familiek etxeko kulturaren berri eman dute.

- Lexiko garapenean eta psikosozialean hobekuntza. Aukera berdintasuna.

Lexikoan lagin osoan behatu ez den arren Leioan non gazteleraren erabilpena nagusitzen den, programak hobekuntza esanguratsuak dakartzala behatu da.

(Oharrak: Debarroan sabai efektua. Programaren bidez sustatutako euskal lexiko maila, bertako haurrek ohiko egoeran garatzen dutenaren parekoa izanik, ez dago aldea behatzerik. Hausnarketa bat dator bertako irakasle eta familiekin jasotako iritziekin. Garrantzitsua jakinaraztea programak adinerako gutxieneko maila zehazten duen arren bere izaera malgua dela haur bakoitzaren mailara hizkuntza eskakizuna moldatzeko. Hala ere planteamentuak eskatzen duen ahalduntze maila egungo errealitatetik aldunduegi, egokiagoa ikastetxe bakoitzeko hizkuntza mailara egokitu eta emaitzak aztertu.

Inplementazioko faktoreak : malgutasuna, irakasle eta gurasoen egoera.

Leioan eraginkorra. Baina soilik koedukazio programaren bidez eskola

---

eta familiak parte hartzen duenean . ).

-Garapen Psikosoziala. Programan haurren lexikoan izan duen eraginaz gain, guraso eta irakasleekin egindako jarraipeneta bilduriko datu kualitatiboek haurrek garapen psikosozialean izandako bilakaeraren berri eman digute. Eta neurtutako hobekuntza hauen indar eragilea familia eta eskolaren parte hartze aktiboa izan dela ondorioztatu dugu, programa soilik eskolan aplikatuz edo eta ohiko dinamika pedagogikoa jarraituz haurrengan ez baita ezberdintasunik behatu.

---

Familia-Eskola eta Komunitatearen arteko baterako hezkuntza: Koedukazioa

F-E koedukaziorako mugak:

Familia eta lan uztarketa



Irakasleen lan antolaketa eta prestakuntza



2019/11/18

14

---

Gizartearen egungo antolaketa:

-Gurasoek lana eta familia uztartzeko zailtasun handiak dituzte, eskolan partaidetza mugatzen dutelarik.


-Eta Irakasleengan familiekin lan egiteko denbora eta formakuntza hutsune handiak.

Hori horrela uste dugu gobernu zein administrazioek neurriak hartu beharko lituzketela egoera bideratzeko.

Beharrezkoa da hezkuntza ereduaren birplanteaketa eta prebentzio politiken indartzea.

---

## Hau izanik egoera, zer egin daiteke?



2019/11/18


15

Egoera dena izanda badago zerbait egiterik?

Gure landa lanean zehar behatu dugu bai irakasle zein gurasoekiko errespetuzko hurbilpenak eta beraiekin hartuemanak, jarrera sentiberago eta partehartzaileagoa eragiten duela. Baita beraien lanaren garrantzia azpimarratzeak eta beraien egiteak haurren garapenean duen eragina azaltzeak.

Euskararen erabilpena sustatu da. Batik bat Leioan, familia askok ezjakintasunaren beldurra gainditu eta euskarari atea ireki diote, berarekin jolastera animatuz eta bi esparruen arteko jarraikortasuna sustatuz.

Leioako eskola eta udalak hala eskatuta, ondorengo bi ikasturteetan Poli Untxia programa aplikatu da eta jarraipen datuak bildu dira, beraz ondorengo datu hauek denboran haurren bilakaeraren berri emango digute.



2019/11/18

16

Gure ikerketak argi utzi du, familia-eskola baterako hezkuntza haurraren garapen psikosoziala sustatzeko gizarte garaikideko erronketako bat dela.

Eta hasieran argudiatu bezala, ikuspegi ekologikotik, Ikerketa ahalbidetzeko fokua familia-eskola koedukazioan jarri den arren, azpimarratu beharrekoa da haurraren garapen psikosoziala sustatzeko KOMUNITATE GUZTIAREN KOHEZKUNTZA BEHARREZKOA dela (Álvarez eta Martínez, 2016; Bolívar, 2006; Deslandes, 2001; Pourtois, Della Piana eta Desmet, 2016). Familia eta eskolaz gain, gizarteko eragile ezberdinek haurraren garapen osotua ziurtatzeko “Hezkuntza Hirian” (Cité de l’Education”) lankidetzan ari daitezten. Gizarteak etorkizuneko biztanle izango diren haurren hezkuntza eta ongizatea berma ditzan.

Koedukazioari dagokionez neurriak planteatu beharko lirateke, beraien efektuak aztertu eta politika egituratuak abian jartzeko, denboran mantenduko diren aldaketak gauzatu. Ikusi baitugu saikera ezberdinak egiten direla baina momentuko profesionalak gaiarekiko adierazten duten sentiberatasunaren araberako jarduera isolatuak direla, ez delarik esku-hartze hauen efektua aztertzen ezta denboran beraien jarraipena ziurtatzen.

---

---

Familia-Eskola eta Komunitatearen arteko baterako hezkuntza: Koedukazioa

## Eskerrik asko zuen arretagatik

[alaitz.etxaniz@ehu.eus](mailto:alaitz.etxaniz@ehu.eus)



2019/11/18

17

---

Koedukazio gaien sakondu edo ikertzeko interesik izanez gero jar zaitez harremanetan. Eskerrik asko